

XXX. UMEEN ANTZERKI ASTEA
2018

AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA**
- 2.- HELBURUAK**
- 3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**
- 4.- GARAPENA**
- 5.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK**
- 6.- AURREKONTUA**

1. eranskina: Udal Eskola kontseiluaren batzarreko akta (2017ko urria)

2. eranskina: 2017ko antzerki jardunaldietako publizitatea

1.- SARRERA

Urtero berriztatzen den egitasmoa eta konpromisoa dugu hau, aurrekontu bakoitzean izan ditugun premia eta diru-baliabideen arabera betetzen saiatuko garena, parte hartzen duten eragileen eskakizunari ere erantzunda.

Udal Eskoletako monitoreekin/irakasleekin elkarlanean, Gernika-Lumoko irakaskuntza zentroetan ahozko adierazmena euskaraz lantzea du helburu egitasmo honek. Gernika-Lumoko Udalak diru laguntza eta material baliabideak jartzen ditu horretarako.

2.- HELBURUAK ETA XEDE TALDEA

Helburu nagusia:

Eskola orduetatik kanpo edota eskola mundutik gizarteratzekoak diren ekintza horietan parte hartzen dutenen artean euskarazko ahozko adierazmena lantzea eta esparru ez formaletan erabilpena normalizatzea, eskola-hizkuntza gizarte-hizkuntza bilaka dadin.

Helburu mailakatuak:

1).- "Inmertsio linguistikoa" deituriko prozesu horretan, hizkuntza "bizitzarako baliabide" dugula-eta, euskararen prestigioa landu ikasleekiko:

- ikasteko
- jolasteko
- lagun berriak egin eta komunikatzeko (ikasle etorkinena batik bat kontuan hartuta).
- Jai giroarekin lotzeko.

2).- Ekintzak antolatzerakoan gurasoen partaidetza landuko da. Hizkuntza transmisioan familia oinarrizkoa izanik, guraso eta seme-alaben

arteko harremanetan euskararen erabilpena ere girotu nahi izango da, etxeko mugetatik aterata gizartean kokatuz.

3).- Hezkuntza arloari zehazki dagokionean, badira bide batez landuko diren atalak:

- Eskola mundua eta gizartea harremanetan jartzea.
- Ikasleak gizarteratzeko bideak jorratzea.
- Euskal ohiturak hedatzea.
- Ikasleen psikomotrizitatea lantzea.

ESEP-en helburuekin bat:

Indarrean daukagun 2014-2017 eperako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana oinarri, Kudeaketa Plana moldatu da eta bertan aintzat hartu hurrengo helburuak:

- **Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.**

2. Irakaskuntza

2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea

2.4.4. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harremanhizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez)

- 2.4.4.3.- Ahozko adierazmena indartzearen, eskolarteko antzerki jardunaldiak antolatu

- **Helburua estrategikoa: 2.- Euskararen erabilera**

7. Aisia eta kirola

7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea (Toki erakundeak)

7.1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan

- 7.1.1.1.- Haurrentzako ekintzak antolatu: udako eskaintza, opor garaietakoak, udako ludoteka,

3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua: bilerak koordinatuko ditu eta gainerako ekintzak antolatu (inprentakoak, ekitaldietarako baliabideak, e.a.).
- Udal Eskola Kontseilua: Batzorde honek egiten dituen bilkuretan, bestea beste, ikasturtean burutuko diren eskolaz-kanpoko ekintzen egutegia zehazten da. Ekintza horien artean Umeen Antzerki jardunaldiena (datak, baldintzak, partehartzaileak, ikusleak, e.a.).
- Ikastetxeak/Institutuak: 6 zentro (Udal Eskola Kontseiluan parte hartzen duten guztiak, Barrutialde Institutua salbu, aurren parte hartzea erabaki dute eta).

Baliabideak:

- Eskoletako/Institutuetako irakasleak/monitoreak (6): zentro bakoitzak egitasmo hau garatzeko arduradun bat jarriko du.
- Diruzkoak, aretoa e.a.: antolaketarako beharko den azpiegitura Gernika-Lumoko Udalak jarriko du eta jarduera zentroetan garatu ahal izateko diru laguntzak ere bideratuko.

4.- GARAPENA

XXX. Umeen antzerki asteak hiru eguneko iraupena izango du: maiatzaren 24tik 26ra, biak barru.

Jardunaldiak Gernika-Lumoko Lizeo Antzokian izango dira. Zentro bakoitzeko talde bat partaide, 6 talde guztira (LH eta DBH-koak).

XXX. UMEEN ANTZERKI ASTEA – 2018

EGUNAK	Goizeko 11:00etan	Arrats. 3:00retan
Maiatzak 14	Gernika Institutua	Allende Salazar ikastetxea
Maiatzak 15	Mertzedede ikastetxea	-----
Maiatzak 16	San Fidel Ikastetxea	Barrutia ikastetxea
Maiatzak 17	-----	Seber Altube Ikastola

5.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldeak:

- LHko ikasleak: guztira 1.100 ikusle, eurretatik 100 bat antzezle.
- DBHko ikasleak: guztira 800, eurretatik 40 bat antzezle.
- Zeharka lantzen direnak: antzezleen familiak (300 bat guraso eta abar).

Adierazleak:

- Antzezle modura parte hartzen dutenak (140) landutako unibertsoarekiko (1.900).
- Ikusle gisa jardunaldietara joango diren ikasleen kopurua: 1.200 (6 ekitaldi x 250 bakoitzeko, baina kontuan hartuz kasuren batzuetan maila berekoek errepikatu egiten dutela).
- Jardunaldietan ikusle gisa egongo diren familiarterkoak.
- Ekitaldi guztiak eskainiko dira udalerriko Oiz-Mendi telebistatik. Aldez aurretik ohartaraziz, etxean grabatu nahi izaten duenak aukera izango du. Ondorioz, gurasoekiko eta familiekiko zeharkako eragina nolabait lantzen dugulakoan gaude, nahiz eta honi lotutako adierazleak eskuratzea oso zaila izanik. Estimaziorik baikorrenak esango liguke antzezleen etxeetan grabatuko direla ekitaldiak eta zeharkako eragina jasoko dutela guraso eta familia hurkoak. Ikusle potentzialak Busturialdea eta Lea-Artibai

eskualdeetan, 11.000 inguru (gehi eskualde horietatik kanpo Oiz-
mendik dituen ikusleak, beste 9.000 inguru –egindako azken
neurketen arabera-).

6.- AURREKONTUA

Gastuak

2000 esku-orri (koloreetan)	1.200
ZUZENEAN- Zerbitzu Teknikoa	2.800
Diru laguntzak zentroei	3.500
Diplomak	150
Guztira gastuak	7.650

Gernika-Lumon, 2018ko urtarrilean.

Marisa Aldemizetxebarria
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizk. Normalizaziorako Teknikaria

I. ERANSKINA

UDAL ESKOLA KONTSEILUAK 2017KO URRIAREN 18an IZANDAKO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreko aztergaiak ekintzaka eta ordu desberdinetan aztertu dira.

Idazkaria: Bittor Zarrabeitia (HNT1)

(...)

2).- 10:00etan, XXX. ANTZERKI JARDUNALDIAK

Bertaratuak:

Marisa Alodamizetxebarria (Euskara zinegotzia)
Naroa Mandaluniz (Seber Altubeko ordezkaria)
Txaro Agirre (Allende Salazarreko ordezkaria)
Ager Cuadrado (Mertzedeko ordezkaria)
Genma Astigarraga (Barrutiako ordezkaria)
Agate Aranaga (Barrutialdeko ordezkaria)
Bego Zabaleta (San Fideleko ordezkaria)
Luis Ortuzar (Gernika Institutuko ordezkaria)

Hartu diren erabakiak:

1.- Entseguetarako egunak eta orduak banatu.

EGUNAK	Goizez 9:30-12:30	Arrats. 14:30-16:30
Maiatzak 9	Barrutia ikastetxea	Mertzedeko ikastetxea
Maiatzak 10	Gernika Institutua	Allende Salazar Ikastetxea
Maiatzak 11	San Fidel Ikastola	Seber Altube Ikastola

2. Jardunaldi egunak: maiatzak 14, 15, 16 eta 17

EGUNAK	Goizeko 11:00etan	Arrats. 3:00retan
Maiatzak 14	Gernika Institutua	Allende Salazar ikastetxea
Maiatzak 15	Mertzedede ikastetxea	-----
Maiatzak 16	San Fidel Ikastetxea	Barrutia ikastetxea
Maiatzak 17	-----	Seber Altube Ikastola

3.- Sariak.- Taldeei diploma bat ematea, oroigarri gisa, eta antzerki saio baterako bono bana antzezleei.

4.- Otsailaren lehenengo asterako antzerki-lanaren fitxa aurkeztea:

- Antzezlanaren titulua.
- Zuzendaria.
- Sinopsia
- Antzezleak eta pertsonaiak.

5.- Lizeo antzokiko aforoarekin izaten diren arazoak saihesteko, alde zurretik jakitea zentro bakoitzak zenbat ikasle eramango dituen ekitaldi bakoitzera.

(...)



gernika-lumoko
euskara zerbitzua





gernika-lumoko
euskara zerbitzua



II. ERANSKINA

2017ko antzerki jardunaldietako publizitatea

**ESKOLARTEKO
XXIX. ANTZERKI ASTEA
2017 GERNIKA-LUMO**

**ESKOLARTEKO
XXIX. ANTZERKI ASTEA
2017 GERNIKA-LUMO**

Egunak	Orduak	Arazak	Lanak	Aretak
24	11:00	Gehi-hituak (Ertza 2. zaldia-aldia)	Tribunaketa: Antzerki, Sorkuntza, Hala ere, gipuzkoak	"Sorkuntza"
	11:00	Orduko antzerkiak (Urt. zaldia-aldia)	Orduko antzerkiak (Antzerki, Sorkuntza, Hala ere, gipuzkoak)	"Tribunaketa: Antzerki, Sorkuntza, Hala ere, gipuzkoak"
25	11:00	Berrikuntza (Urt. zaldia-aldia)	Berrikuntza (Antzerki, Sorkuntza, Hala ere, gipuzkoak)	"Tribunaketa"
	11:00	Antzerkiak (Ertza 2. zaldia-aldia)	Antzerkiak (Ertza 2. zaldia-aldia, antzerkiak, gipuzkoak)	"Tribunaketa"
26	11:00	Antzerkiak (Urt. zaldia-aldia)	Orduko antzerkiak (Antzerki, Sorkuntza, Hala ere, gipuzkoak)	"Tribunaketa"
	11:00	Antzerkiak (Urt. zaldia-aldia)	Antzerkiak (Sorkuntza, Hala ere, gipuzkoak)	"Tribunaketa"

**ESKOLARTEKO
XXIX. ANTZERKI ASTEA
2017 GERNIKA-LUMO**

**ESKOLARTEKO
XXIX. ANTZERKI ASTEA
2017 GERNIKA-LUMO**

**MAIATZAREN 24tik 26ra
LEEO ANTZERKIAN**

Maizak
GERNIKA LUZER GUTIA
GUTIA ez da 2. erdiko hizketa!
GUTIA @1800

24

24

24




Maizak
BAZTEREKO BAZTEREKO
GUTIA ez da 2. erdiko hizketa!
GUTIA @1800

24

24

24



Maizak
BAZTEREKO BAZTEREKO
GUTIA ez da 2. erdiko hizketa!
GUTIA @1800

25

25

25




Maizak
BAZTEREKO BAZTEREKO
GUTIA ez da 2. erdiko hizketa!
GUTIA @1800

25

25

25



Maizak
SAN PIZKOI, LUZERETOKA
GUTIA ez da 2. erdiko hizketa!
GUTIA @1800

26

26

26



Maizak
ALDURERAKO BAZTEREKO
GUTIA ez da 2. erdiko hizketa!
GUTIA @1800

26

26

26

